



JORNADAS

MEMORIA, CONVIVENCIA Y DERECHOS HUMANOS

DEL 29 DE MARZO
AL 26 DE ABRIL
2023

“Una mirada desde las artes”

La Dirección General de Paz, Convivencia y Derechos Humanos tiene como principal empeño contribuir a lograr una sociedad plural y democrática más cohesionada, sin violencia, que aborde sus problemas y desencuentros desde el diálogo, el respeto y la búsqueda compartida de soluciones. Tenemos como horizonte promover una cultura de paz, impulsar procesos de conciliación de la convivencia y una apuesta por el respeto a los Derechos Humanos de todas las personas.

La séptima edición invita a la participación con diversas propuestas que una

vez más se desarrollarán a través de diferentes disciplinas artísticas: teatro, audiovisuales, murales, narraciones para adultos y coloquios.

Con estas jornadas queremos promover una reflexión y una labor de sensibilización en el respeto de la dignidad de todas las personas. La propuesta que hacemos quiere llegar a todo tipo de públicos.

Como en anteriores ocasiones, nuestra mirada se dirigirá tanto al ámbito local, como al ámbito internacional, a los procesos de vulneración de los Derechos Humanos que se producen.

FECHA Y LUGAR

DEL 29 DE MARZO AL
26 DE ABRIL DE 2023

29 de marzo. Miércoles.
“Cuentos: Vivencia y Convivencia”.
Narraciones para adultos y coloquio.
Planetario. Pamplona. 18:30 h.

31 de marzo. Viernes.
Inicio del proceso “Mural por la Convivencia”.
Bera.

4 de abril. Martes.
“La práctica de la cultura para la transformación social”.
Webinar accesible.
16:00 h.

Del 17 al 21 de abril.
V Encuentro audiovisual
“Imágenes con memoria”.
Golem Baiona. Pamplona.

24 de abril. Lunes.
Entrega de premios del
VI Concurso Escolar “Diversidad
fuente de riqueza”.
Baluarte. Pamplona. 11:00 h.

26 de abril. Miércoles.
Obra de teatro. “La Malpagá”.
IES Plaza de la Cruz. 12:00 h

29 MARZO
MIÉRCOLES

18:30H. PLANETARIO

CUENTOS: VIVENCIA Y CONVIVENCIA

De la mano de tres grandes referentes de la narración oral (**Soledad Felloza, Kamel Zouaoui e Inés Bengoa**) nos adentraremos en el mundo de los cuentos para abordar la oralidad como elemento transformador y herramienta fundamental en la mejora de la convivencia. Cuentos para adultos y coloquio. **Entrada libre.**

31 MARZO
VIERNES

MURAL POR LA CONVIVENCIA

Entre el 31 de marzo y el 25 de abril Bera acogerá un proceso participativo dirigido por la artista **Leire Urbeltz** que dará como resultado un mural por la convivencia. La manera de entender y sentir la diversidad será el tema principal a trabajar.

4 ABRIL
MARTES

16:00H. ACCESIBLE

WEBINAR

“La práctica de la cultura para la transformación social” será el tema a abordar en el webinar accesible. Participarán impulsores de diferentes proyectos. Inscripción [aquí](#)

24 ABRIL
LUNES

11:00H. BALUARTE

ENTREGA PREMIOS VI CONCURSO ESCOLAR “DIVERSIDAD FUENTE DE RIQUEZA”

Concurso en el que han participado escolares de toda Navarra de Educación Primaria, Secundaria y Formación Profesional. En la entrega de premios se darán a conocer los trabajos premiados y será un acto lúdico-musical en agradecimiento a todas las personas que han participado.

26 ABRIL
MIÉRCOLES

12:00H.
IES PLAZA DE LA CRUZ

TEATRO



El alumnado navarro de Bachillerato y Formación Profesional tendrá la oportunidad de ver la obra de teatro **LA MALPAGÁ** de Producciones Maestras. Se trata de un cabaré canalla, una propuesta en la que el humor, la crítica social, la poesía y la emoción se dan la mano para vertebrar una puesta en escena que nos recuerda todo lo que hemos avanzado como sociedad y podemos retroceder, si no prestamos atención.

17-21 ABRIL

V ENCUESTRO AUDIOVISUAL

“IMÁGENES CON MEMORIA”

GOLEM BAIONA
A LAS 17:00 Y A LAS 19:30H.

Proyección diaria de audiovisuales que abordan diversos temas en el contexto de la represión en el franquismo, poniendo el foco principalmente en las consecuencias que sufrieron las mujeres: “Valencia, capital de la República”, “Clara Campoamor, un voto para despertar”, “Vencidas, no derrotadas”, “María Casares, la mujer que vivió mil vidas”, “La red Ponzán”, “Paseo por una guerra antigua”, “Kautela, el fotógrafo”, “Estos muros”, “Los ángeles caídos: el fanatismo de los psiquiatras de Franco”, “Ciudad de la selva”, y “Cárcel de curas”.

La entrada es libre hasta completar aforo; retirada de las invitaciones en taquilla a **partir del 10 de abril.**





JARDUNALDIAK

MEMORIA, BIZIKIDETZA ETA GIZA ESKUBIDEAK

MARTXOAREN 29TIK
APIRILAREN 26RA
2023

“Begirada bat arteen bidez”

Nafarroako Gobernuko Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak hauxe du bere egiteko nagusia: gizarte pluralago eta demokratikoagoa lortzea, indarkeriarik gabea, bere arazo eta desadostasunak konpontzeko asmoz elkarriketatuz baliatzen dena, elkarrenganako errespetua oinarri hartuta. Helburu ditugu bake kultura sustatzea, bizikidetza eta adiskidetzeari indartzeko prozesuak bultzatzea eta pertsona guztien giza eskubideekiko errespetuaren aldeko apustua egitea.

Zazpigarren edizioak parte hartzeko gonbita egiten die

herritarrei, beste behin ere hainbat diziplina artistikoren bitartez garatuko diren proposamenekin: antzerkia, ikus-entzunezkoak, horma-irudiak, helduentzako narrazioak eta solasaldiak.

Jardunaldi hauen bidez, pertsonen duintasunari zor zaion errespetuaren inguruko sentsibilizazio lana eta hausnarketa bultzatu nahi ditugu. Egiten dugun proposamenak herritar ororengana heldu nahi du.

Aurreko urteetan egin izan dugun bezala, begirada gure inguru hurbilera luzatuko dugu, baina baita nazioartera ere, Giza Eskubideen urraketa prozesuetara.

DATA ETA TOKIA

2023ko MARTXOAREN 29TIK
APIRILAREN 26RA

Martxoak 29. Asteazkena.

“Ipuinak: Bizipenak eta Bizikidetza”. Helduentzako narrazioak eta solasaldia. Planetarioa. Iruñea. 18:30ean.

Martxoak 31. Ostirala.

“Bizikidetzaren aldeko horma-irudia” prozesuaren hasiera. Bera.

Apirilak 4. Asteartea.

“Kultura gizarte-eraldaketarako tresna gisa” Webinar irisgarria. 16:00etan

Apirilaren 17tik 21ra.

“Memoria duten Irudiak” Ikus-entzunezkoen IV. Topaketa. Golem Baiona. Iruña.

Apirilak 24. Astelehena.

“Aniztasuna aberastasun” VI. Eskola Lehiaketaren sari banaketa. Baluarte. 11:00etan.

Apirilak 26. Asteazkena.

“La Malpagá” antzerki obra. IES Plaza de la Cruz. 12:00etan.

29 MARTXOA
ASTEAZKENA

18:30EAN. PLANETARIOA

IPUINAK:

BIZIPENAK ETA BIZIKIDETZA

Ahozko narrazioaren hiru erreferente nagusiren eskutik (**Soledad Felloza, Kamel Zouaoui eta Inés Bengoa**), ipuinen munduan murgilduko gara ahozketasuna elementu eraldatzaile eta elkarbizitza hobetzeko funtsezko tresna gisa jorratzeko. Helduentzako ipuinak eta solasaldia. **Sarrera libre.**

31 MARTXOA
OSTIRALA

BIZIKIDETZAREN ALDEKO HORMA-IRUDIA

Martxoaren 31 eta apirilaren 25 artean Beran parte-hartze prozesu bat egingo da **Leire Urbeltz** artistak zuzenduta. Prozesu horren emaitza bizikidetzaren aldeko horma-irudi bat izango da. Aniztasuna ulertu eta sentitzeko modua hartuko dute gaitzat.

4 APIRILA
ASTEARTEA

16:00ETAN. IRISGARRIA

WEBINAR

“Kultura Gizarte-eraldaketarako tresna gisa” izango da webinar irisgarria lan-duko den gaia. Hainbat proiekturen sustatzaileek parte hartuko dute.

Izen-ematea **hemen** ➡

24 APIRILA
ASTELEHENA

11:00ETAN. BALUARTE

SARI BANAKETA
VI. ESKOLA LEHIAKETA

“ANIZTASUNA ABERASTASUN”

Lehiaketan Nafarroa osoko Lehen eta Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako ikasleek parte hartu dute. Sari banaketan lan sarituen berri emango da eta parte hartu duten gaztetxo guztiei esker onez eskainitako ekitaldi ludiko-musikala izango da.

26 APIRILA
ASTEAZKENA

12:00ETAN.
IES PLAZA DE LA CRUZ

ANTZERKIA



Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasle nafarrek Producciones Maestrarek ekoiztutako **LA MALPAGÁ** antzezlanak ikusteko aukera izango dute. Kabare zital bat da, umorea, kritika soziala, poesia eta emozioa eskutik helduta dituen proposamena, gizarte gisa, arreta jarri ezean, aurreratu dugun guztian atzera egin dezakegula gogorarazten diguna.

17-21

APIRILA

IKUS-ENTZUNEZKOEN
V. TOPAKETA

“MEMORIA DUTEN IRUDIAK”

GOLEM BAIONA

17:00ETAN ETA 19:30EAN

Frankismoko errepresioaren testuinguruan hainbat gai jorratzen dituzten ikus-entzunezkoen eguneroko proiektzioa, arreta batez ere emakumeek jasan zituzten ondorioetan jarritik: “Valencia, capital de la República”, “Clara Campoamor, un voto para despertar”, “Vencidas, no derrotadas”, “María Casares, la mujer que vivió mil vidas”, “La red Ponzán”, “Paseo por una guerra antigua”, “Kautela, el fotógrafo”, “Estos muros”, “Los ángeles caídos: el fanatismo de los psiquiatras de Franco”, “Ciudad de la selva”, eta “Cárcel de curas”.

Sarrera libre da aretoa bete arte; gonbidapenak leihatilan jaso ahalko dira **apirilaren 10etik aurrera**.

